

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

**KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA**

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernuaren kultura-agenda aste honetarako

*Erakusketak, kontzertuak eta bisita gidatuak biltzen ditu*

Astelehena, 2017.eko irailak 4

Nafarroako Gobernuak honako kultura-jarduera hauek antolatu ditu irailaren 4tik 10era bitarteko asterako:

### ZINEMA

#### [Escándalo \(Akira Kurosawa, 1950\)](#)

##### **Nafarroako Filmoteka Asteazkena / 20:00etan**

Kazetaritza sensazionalistari egindako kritika bikaina, Akira Kurosawak zuzendua –gidoiaren zati bat ere hark egin da–. Toshirô Mifune da aktore protagonista, hau da, ospe handiko errealizadorearen aktore kutuna. Escándalo drama judizial eder bat da, maisu japoniarraren bereizgarri paregabeak biltzen dituena.

Zikloa: Abogados en el cine.

Hizkuntza: JB japonieraz gaztelaniazko azpitoluekin.

Iraupena: 104 min.

#### **El burgo de San Cernin (Antonio José Ruiz, 1996)**

##### **Nafarroako Filmoteka Osteguna / 20:00etan**

Nafarroako hiriburuan oso-osorik grabatu den Rincones y nostalgias de Pamplona dokumentalaren laugarren kapitulua.

Lan honek Iruñeko Burguaren historia txikia aztertzen du Manuel Monjek aurkeztutako oroitzapen eta anekdotez baliatuta; izan ere, solasean aritzen da Burguko dorrearekin eta San Zerningo oilartxoarekin, eta, bidenabar, haurtzaroaren oroitzapenak ekartzen ditu gogora.

Hizkuntza: JB gaztelaniaz.

Iraupena: 60 min.

#### [Central Térmica de Pamplona - IMENASA](#)

##### **Nafarroako Filmoteka Ostirala / 20:00etan**



Concerto Melantek Lizarrako Santa Clara elizan emanaldia eskainiko du ostiral honetan.

### **-Iruñeko Zentral Termikoa**

Enrique Soler ingeniariak filmatu zituen eraikina altxatzeko lanak, eta Alemaniara ere joan zen makinak ekartzeko bidaia gainbegiratzeko. Ez zuen zailtasun handirik izan prozesu horretan guztian, instalazio hori sustatzen zuen konpainiarako –Irati– ari baitzen lanean.

Proiektzioan zehar, Josetxo Fernández de Ortega musikariak zuzenean joko du pianoa.

### **-Imenasa**

IMENASA industriaren jarduera erakusten da film dokumental horretan; Félix Huarte enpresaburu nafarrak sortutako enpresa zen. Industria Iruñeko Donibane auzoan zegoen, eta, dokumentalean, hango tailerretan, bulegoetan edo fabrikaren instalazioen barnean zeuden prestakuntza-zentroetan egiten zen lana erakusten da.

Aurkezlea: Juan Ramón de la Torre, ADItech-eko zuzendari nagusia. Solasaldia Víctor Manuel Egia Astibia medikuarekin, zeina gure kulturaren zale amorratua eta ikerlea baita.

## **IKASTAROAK ETA TAILERRAK**

### **[Egunerokoaren joana asaldatu](#)**

#### **[Huarte zentroa](#)**

#### **Ostirala (17:00etan) / Larunbata (10:00etan, 16:00etan) / Igandea (10:00etan)**

Lengoaia eta mugimenduaren laborategi bat, José Oteroren eta Kamen Nedeven eskutik.

Laborategi horretan, gure bizitzen egunerokoan eremu publikoetan izaten diren mugimenduak jorratu nahi dira, ikerketarako tresna gisa. Abiapuntu bat izanen dira, hiriko eta periferiako espazioetan gertatzen diren eguneroko esperientzien areagotzea eta erritmo-alterazioak aztertzeke.

## **ERAKUSKETAK**

### **[Haiek Danak Sorginak](#)**

#### **Lorategi historikoa, Bertizko Jaurerriko natura parkean**

**2017/07/20 - 2017/09/04**

SAUVAGEren parte-hartzearekin.

Komisarioa: Alexandra Baurès.

KULTUR programaren barnean antolatuta

ORDUTEGIA: Egutero zabalik, 10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara.

Proiektua gertalekuetan barna ibiltzen da, hots, baso, leize eta baserrietan, eta ustezko sorginkeriak eszenifikatzen ditu, hala nola zeremoniak, orgiak edo infantizidioak. Halaber, emakume haiek jazarpenaren mende bizi izan zuten desesperazioa ere ekartzen du gogora. Aurpegia jarriz egiten die gorazarre.

### **[Kamera ilunaren bitartez](#)**

#### **Karlismoaren museoa**

**2017/05/17 - 2017/11/05**

Lizarrako Karlismoaren Museoak aldi baterako erakusketa berri bat biltzen du, irailaren 5era arte ikusgai egonen dena. Asunción Domeño du komisarioa, Nafarroako Unibertsitateko irakaslea eta argazkilaritzan aditua. Erakusketak, argazkilaritzaren aurrekarietan murgilduta, hasierako prozedura fotografikoak aztertzen ditu, hala nola dagerrotipoa edo kalotipia, baita aristotipoak, argazki artistikoa edo inprimaketa-argazkia ere.

### **[Oihuaren anatomia](#)**

## **Nafarroako Museoa**

**2017/05/11 - 2017/09/24**

Nafarroako Museoa erakusten duen Oihuaren anatomia erakusketa txikia bi aretotan banatzen da lehenbiziko aldiz, bi solairutan hain zuzen. Bilduma iraunkorreko bi piezen arteko elkarrizketa bat proposatzen du Federico Clavarinoren (1984, Turin) argazkiekin, zeinak haren azken lanaren parte baitira: The Castle. Lehen pieza, I. mendekoa, Santakarako aztarnategian aurkitu zen eta Calceus du izena; bigarrena, XIX. mendekoa, marmolezko busto bat da, Agustín Querol y Subiratsek egina, eta oihuka ari den gazte baten burua irudikatzen du. < bilduman > Fundazioaren Kutxa Nafarroako figurazioa eta Abstrakzioa 70s.

### **[Forma 70s. Abstrakzioa eta figurazioa Nafarroako Kutxa Fundazioaren bilduman](#)**

## **Nafarroako Museoa**

**2017/06/15 - 2017/10/01**

Erakusketak formen elkarrizketa bat proposatzen du pintura tradizionalaren eta abangoardiako pinturaren artean, hizkuntza figuratiboen eta abstraktuen artean, eta adierazpen esperimentalen eta herrikoien artean. Elkarrizketa hori kidetasunek eta kontrasteek markatutakoa da, zeinek bat egin baitzuten garai bateko erreferentziako zenbait erakusketa-aretotan; izan ere, Iruñeko eta Nafarroako panorama artistikoaren foku dinamizatzaileak ziren erakustoki haiek.

### **[José Ramón Anda. Kausa formala eta materiala](#)**

## **Oteiza museoa**

**2017/06/21 - 2017/10/01**

Oteiza museoa erakusketa-proiektu berri bat biltzen du, José Ramón Anda deitutakoa. Kausa formala eta materiala erakusketak sortzaile horrek eskulturari emandako ekarpena analizatzen du, eta haren lana aztertzen. "Eskulturaren Euskal Eskola" deitutakoan aritutako artisten bigarren belaunaldiari lotuta egon zen Anda, eta hizkuntza artistikoak berri zituena joan den mendeko hirurogeiko hamarkadatik aurrera.

## **MISZELANEA**

### **KULTUR**

#### **[Kontzertua Mikel Gaztelurrutia Trío](#)**

**Mendigorriko gizarte-etxea**

**Osteguna / 20:00etan**

Walk diskoa grabatu berri dute, The Road Less Traveled liburua –Scott Peck idazlearena– inspirazio-iturri hartuta. Walk lanak gogora ekarri nahi ditu gure bizi-ibilbidea eta gure erabakiak zuzentzen dituzten mugimendua, pultsio erritmikoa eta inprobisazioa. Walk lanean, afro, guaracha edo mambo erritmoak aurkituko ditugu, baita reggae, bossa-nova eta funk erritmoak ere.

#### **[Kontzertua: Iñaki Askunze & Bob Sands Big Band](#)**

**Alfonso el Batallador plaza**

**Ostirala / 20:30ean**

Bob Sands Big Band banda jazz-panorama nazionalako talde zirrargarrienetako bat da. Bob Sands saxofonista newyorktar beteranoak zuzenduta, kalitate bikaina lortu du, eta, Time aldizkariaren ustez, "garbia eta modernoa" den soinu bat ere bai.

Ibilbidea Tuteran, bisita gidatua

18:00etan / 1h 30'. Monreal dorrea.

Prezioa: 3 €

Erreserbak: T. 948 417 100 / [turismo@tudela.es](mailto:turismo@tudela.es)

### Kontzertua: O Carolan

#### **Caballeros Templarios kalea (Barranco) Ribaforada**

**Larunbata / 22:30ean**

O' Carolan taldeak ospe handiko Tourlough O' Carolan konpositore irlandarraren izenetik hartzen du berea; izan ere, hark maisutasunez funditu zituen bere garaiko musika barrokoa eta Irlandako –haren sorterria– musika tradizionala. Talde aragoarrak 25 urte daramatza agertokien gainean, eta konpositore irlandarrari eta musika “atlantikoei” zuzendutako hiru lan diskografikoren ondoren, Aragoiko musika tradizionalaren lurraldean sartu da.

## **MUSIKA**

### **ANTZINAKO MUSIKAREN ASTEA - LIZARRA**

#### Sevillako Orkestra Barrokoaren bakarlariak

**San Migel eliza (Lizarra)**

**Astelehena / 20:15ean**

Sevillako Orkestra Barrokoa (Ventura Ricok –kofundatzailea– eta Pedro Gandía Martínek –egungo zuzendari artistikoa– batera abiarazitako proiektua), zalantzarik gabe, historia-irizpideekin antzinako musika interpretatzen duten Espainiako taldeen lehen mailan kokatzen da. Topaketa afaria Monjardín jatetxea (Lizarra)

21:45ean

<http://www.culturana Navarra.es/es/agenda/2017-09-04/conciertos/cena-encuentro>

Afariaren

prezioa: 15 euro

Izen-emateak eta salmenta [www.baluarte.com](http://www.baluarte.com) webgunean (0,95 euroko komisioa sarrera bakoitzeko)

#### Benjamin Alard

**Santa Klara eliza (Lizarra)**

**Asteazkena / 20:15ean**

J.S. Bachen musika izan da beti Benjamin Alarden pasio nagusia, eta, hain zuzen, konpositore handi haren interpretazioagatik jaso zuen lehen saria Brujasko Nazioarteko Klabe Lehiaketan, 2004an.

2005etik, La Petite Bande taldeko kidea izan da; 1973an fundatu zuten talde hori Gustav Leonhardt eta Sigiswald Kuijken musikariek, eta azkenaldi honetan Benjamin Alardek zuzentzen du taldea klabetik.

#### Concerto Melante

**Santa Klara eliza (Lizarra)**

**Ostirala / 20:15ean**

Lau musikaririk –haietako bi Berlingo Filarmonikoaren kide dira– osatzen dute Concerto Melante.

Taldea SONY Classicalen artista eskusiboa da. Honako lan hauek plazaratu ditu zigilu horrekin: Spirituosa, Telemannen ganbera-musika, eta, 2012an, Sacred Arias CD-a. 2013an, J. S. Bach-en Musical Offering lana grabatu zuen. 2015ean, taldeak CD berri bat plazaratu zuen, Domenico Galloren musika barroko italiarraren munduko lehen grabazioak biltzen zituena. Haren produkzio berria, Telemann/Luther lana, 2017an estreinatu da arrakasta handiz.

#### SMADE Jardunaldia Karrikan

**K arrika (Lizarra)**

**Larunbata / 12:30ean**

**Ana Alcaide Trío**

Musika sefardiaren kontzertua

12:30ean Gustavo de Maeztu museoa

## **Vox Biderri + Gizonok**

18:00etan Geltokiko plaza

### **Ana Alcaide hirukotea eta Belén Otxotorena**

“Estela Sefardi” familia-kontzertua

18:30ean. Ibilbidea: Picudo zubitik abiatuta, Kultura Etxean bukatuko da.

## **Vox Bigerri + Gizonok**

### **Santa Klara eliza (Lizarra)**

**Larunbata / 20:15ean**

Pirinioetako bazterretan dar-dar egiten duen polifonia espontaneoaren jardunean murgilduta, Vox Bigerri koru profesional bat da, Pirinioetako, Bigorrako, Bearnoko, Euskadiko eta Kataluniako polifonietan buru-belarri aritzen diren bost kantarik osatua. 2004an osatu zen, eta dagoeneko 300 kontzertutik gora eskaini ditu Frantzia eta beste herrialde batzuetan.

18 kantarik osatzen dute Gizonok; ezagutza musikal desberdina badute ere, haietako gehienek eskarmentu luzea dute zenbait abesbatzatan.

## **Iruñeko Katedraleko Musika-Kapera**

**Orreagako Kolegiata**

**Larunbata / 20:00etan**

Iruñeko katedraleko musika-kapera Nafarroako musika-erakunderik zaharrena da. Orkestra propioa izan zuen XX. mendearen erdialdera arte, eta 800 urtetik gora daramatza han egiten diren elizkizunen zati musikalaren buru. Gaur egun, 35 kidek osatzen dute katedraleko musika-kapera. Den-denak laikoak dira, honako bi hauek izan ezik: Julián Ayesa, organo-jotzailea, eta Aurelio Sagaseta, kapera-maisua –bi-biak katedraleko kanonigoak dira–.

## **Vozes del Ayre**

### **Santa Klara eliza (Lizarra)**

**Igandea / 20:15ean**

Monteverdiren madrigalak dira SMADE 2017-ko azken kontzertuaren protagonistak.

Vozes del Ayre eta Al Ayre Español taldea proiektu paraleloak dira, eta lehenbizikoak ahots-osagarri bat eman nahi dio hala nazioko nola nazioarteko panoraman egindako ibilbide instrumental egonkor bati; proiektua 2007an aurkeztu zen Zaragozako Auditoriumean.

## **HAURRENTZAKO AISIA**

### **“Kontatu zure historia” tailerra**

**Nafarroako Liburutegia (Haurren aretoa) Astelehena, asteartea / 10:00etatik 12:00etara.**

Nicolás Albarekin; istorio bat kontatuko du collage eta marrazkien bitartez.

5 eta 12 urte bitarteko haurrentzat.

Parte-hartzaile kopurua, gehienez: 12 haur.

Tailerrak doakoak dira baina izena eman behar da, liburutegiko erakusmahaian edo haurren aretoan. Leku mugatuak 848 42 89 80/ 848 42 77 97

### **"Isilik...!" tailerra**

**Nafarroako Liburutegia (Haurren aretoa)**

**Asteazkena, osteguna / 17:00etatik 19:00etara**

Ilustrazioari eta literatura-sormenari buruzko tailerra Beatriz Bermúdezekin eta Yanira Calvorenkin.

8 eta 12 urte bitarteko haurrentzat

Parte-hartzaile kopurua, gehienez: 15 haur

Tailerrak doakoak dira baina izena eman behar da, liburutegiko erakusmahaian edo haurren aretoan.

Leku mugatuak 848 42 89 80/ 848 42 77 97

## BISITAK ETA IBILALDIAK

### [Bisita gidatua Iruñeko katedralaren klaustroa konpontzeko lanetara](#)

#### **Iruñeko katedrala**

#### **Igandea, 10:00 / 11:00 / 12:00**

Ekainean bukatu ziren Iruñeko katedralako klaustroaren iparraldeko aldea zaharberitzeko lanak; 2016ko abuztuan hasi ziren, eta hormartearen barnean eta lorategiko fatxadan egin dira. Horregatik, Nafarroako Gobernuak Ondarearen Zerbitzuak doako bisita gidatuen programa bat antolatu du, lan horiek bertatik bertara ikusteko aukera ematen duena.

Erreserbak      Nafarroako      Ondare      Historikoa      Kontserbatzeko      Fundazioaren  
webgunean:<http://visitas.fcpatrimoniodenavarra.com>